

KANALAK


Gure enpresa (dantza eskola), komunikazio kanalaren erabilera gure zerbitzuaren atal garrantzitsuetariko bat da, izan ere, honek aukera ematen digu bezeroekiko harremana aurrez aurre eta era pertsonalizatuan egitea.

Halaber, gure helburua zerbitzua zuzenean eta kalitatezkoa eskaintzea , eta horretarako, beharrezkoa da bezero bakoitzaren beharrei egokitzea.

Gainera, bezeroarekin komunikazioa zuzena izango da, edozein aldaketa gertatzen bada, informazioa momentuan bertan eta klaru azaldu ahal izango dugu. Mugikorraren bidez komunikatu ahalko gara, zerbitzua azkartzeko, eta horri esker, ziurtatu dezakegu bezeroek zerbitzua modu erosoan jasotzen dutela. Modu horretan, bezeroarekiko konfiantza hartzen saiatuko gara, gure zerbitzua erakargarriago eginez.



Bestalde, gure jardueraren kalitatea mantendu eta hobetzeko, azpikontratu batzuk egingo ditugu. Lehenik, dantza eskolako irakasle esperientziadunak kontratatuko ditugu, ikasleei irakaskuntza ona eskaintzeko. Gure asmoa da dantza estilo eta mota ezberdinak erakustea, ikasleak erakartzeko eta bakoitzaren gustuak asetzeko. Profesionalen talde bat arduratuko da eskolaren irudia eta kalitatea zaintzeaz.



Azkenik, dantza eskolaren parte izan nahi dutenek bertara joan beharko dute (instalazioetara). Eskola fisiko baten garrantzia dela uste dugu, izan ere, bertan sortzen den giroak taldea indartu eta parte-hartzaileen arteko harremanak hobetzen ditu. Klaseak presentzialak izateak harreman zuzena ahalbidetzen du, eta horrek ikaskuntza prozesua eraginkorragoa bihurtuko du. Gainera, espazio fisikoak, profesionalagoa eskaintzeko prestatuta daude, eta parte-hartzaileek erabateko esperientzia onak bizi izateko, prestatuta egongo dira.

Laburbilduz, gure balio nagusiak profesionaltasuna eta bezeroarentzako dedikazioa dira, eta horiei esker, gure jarduerak arrakasta izango du etorkizunean, kalitate handiko zerbitzuak eskaintzen konprometitzen bagara.